

Hirigintza VIII: Plangintzaren praktika

Desklasifikazioa eta birdentsifikazioa Donostiako ekialdean

Hiria trinkotzeko antolamendua, plangintza eta kudeaketa



Antonio Paguaga Donostiako alkatea, 1940ko apirilaren 6an, Altza bereganatzeko ekitaldian.



Altza, 1945-1946an.




«Altzako herrixka berria»: 40.000 biztanlerako proposamena, Donostiako 1950eko Plan Orokorrean.




Goian, Donostiako Intxaurrondo-Alza eta Erreenteriako Galtzaraborda, 1956-1957an. Behean, 1977-1978an





1995eko HAPOn 800 etxebizitza berri planteatu ziren Auditz-Akularren. Zoru urbanizagarri ez-programatuan klasifikatu zen. Plan Partziala ez zen egin.
Bai planteatu zela Landarroko industrialdea eta Altza eta Antxoko autobide-korapiloa lotzeko bide berri bat, ez zena egin.



2000n HAPOaren aldaketa bat tramitatzen saiatu zen Odon Elorza (PSE). 3.000 etxe planteatu zituen Auditz-Akularren, Patxo de Leon hirigileak egindako proposamen baten bidez.
Altzan planaren aurkakotasuna piztu zen eta Altza XXI Herri Ekimena plataforma sortu zen 2000n. EAJk «soilik» 800 etxe egitea defendatu zuen: <https://altzanet.eus/wp-content/uploads/2023/10/estibaus-auditakular.pdf>



Kritika ugariaren ondoren, 2003ko uztailean Auditz-Akularrerako lehiaketa ireki bat egin zuen Udalak (PSEK). 3 proposamen aukeratu ziren lehen fasean: Patxo de Leon, Mecsá eta Zubiria.

[https://www.donostia.eus/info/general.nsf/File/AuditAkular.pdf/\\$File/AuditAkular.pdf](https://www.donostia.eus/info/general.nsf/File/AuditAkular.pdf/$File/AuditAkular.pdf)

Patxo de Leonen proposamena





Mecsáren proposamena



Javier Zubiria, Llanos Masiá eta Carmen Andrésen proposamenak irabazi zuen 2004an. Txingurrigaina ere hartu zuten.



Ondoren, HAPOa aldatu zen 2008an eta Plan Partziala egin zen (2009ko azaroan onetsi zen). Baita birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuak ere.




Lur-mugimenduak oso handiak ziren. Handiegiak. Horrek, neurri handi batean, operazioa geldiarazi zuen, sustatzaileentzat errentagarria ez zelako.

HAPO berriaren 2024ko aurrerapena saiatu da etxe kopuru bera planteatzen Auditiz-Akularren, hainbeste lur mugitu gabe.




Emitza zalantzarria da: kale itsuetan oinarritutako 3.000 etxedun sektore berri bat planteia daiteke?

2025ean Jaurlaritzak plan alternatibo bat aurkeztu du, Blas Urbizu arkitektoak egina. Arazo antzekoekin: kale itsuetan oinarritutako (gutxienez) 3.000 etxedun eta parke teknologikodun auzo berri bat?




HAPO berriaren 2024ko aurrerapenak planteatutako GI-20aren baretzeak aukera berriak irekitzen ditu



HAPO berriaren 2024ko aurrerapenak Txingurri eraberritzea eta Txingurrigaina urbanizatzea eta eraikitzea ere planteatzen du. Pentsatzeko aukera da.



Intxaurrendoko Guardia Zibilaren kuartela ere aukera-eremu interesgarria izan liteke: 8,3 ha-ko azalera dauka, eta bertan soilik 360 etxebizitza daude.



Loiolako kuartelak lekualdatzea posible bilakatu bada, Intxaurrendoko kuartela lekualdatzea ere posible izan beharko litzateke.

Hori dela eta, plantatzen da Auditz-Akular desklasifikatzea, eraikigarritasuna, osorik edo gutxienez nagusiki, beste eremu batzuetara eramanez.

